

Haurren Lanaren aurkako Munduko Eguna

EAEko gazteen % 16k, produktu bat erosterakoan, produktu hori ekoiztean gizarte-bidegabekeriaren bat gauzatu den galdetzen diote euren buruari.


Ekainaren 12a **Haurren Lanaren aurkako Munduko Eguna** dela-eta, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko herritarren kontsumo etikoari buruzko hainbat datu emango ditu [Gazteen Euskal Behatokia](#)k, erakundeak berak 2013an argitaratutako [Gazteak eta kontsumo arduratsua](#) ikerketatik eratorriak.

Kontsumo etikoari lotutako jokaeren artean, zera galdetzen zen Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketan: elkarrizketatuek aintzat hartzen ote zuten, produktu bat erosterakoan, produktu horren ekoizpenean gizarte-bidegabekeriarik –haurren esplotazioa, kasu- jazo den ala ez.

Produktuaren alderdi hori aintzat hartu ohi zutela erantzun zuten gazteen % 16k. % 26k noizean behin baino ez omen dute egiten, eta % 58k, inoiz ez edo ia inoiz ez.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, alderdi horren inguruko kontzientziak gora doa adinean gora egin ahala. 15 eta 19 urte bitartekoen % 10ek baino ez diote euren buruari galdetzen produktu baten ekoizpen-inguruabarrei buruz. Balio hori % 15era heltzen da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 20raino, 25 eta 29 urte bitartekoengan. Kontzientzia hori zabalduago dago emakumeengan, gizonengan baino.

PRODUKTU BAT EGITEKO BIDE GABEKERIA
SOZIALEN BAT EGIN OTE DEN INFORMATZEN
SAIATZEN DA SARRITAN



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Kontsumo etikoari lotutako praktika horrek gazteen artean duen zabalkunde murrizta ikusita, beharrezkoa dirudi sentsibilizazioa areagotzeak. Izan ere, merkatu globalean, produktu bat erosteak haurren esplotazioa bezalako gizarte-bidegabekeriei jarraipena ematea ekar dezake berekin.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

